

Visesa lurzorua kudeatzen eta babes publikoko etxebizitza sustatzen duen sozietate publikoa da. Hiriko berroneratze eta berritzea bultzatzen, laguntzen eta sustatzen ditu era aktiboan, eta etxebizitza nahiz azpiegitura publikoak ere birgaitzen ditu, irisgarritasuna hobetuz eta lurralde iraunkor baten sustapena bilatuz, ingurumenaren eta lurralde orekaren ikuspuntutik.

Gure jarduerak zuzenean natura eta hiriko ingurunean du eragina, honako hauen bidez: gure esku-hartzeen eragin fisikoa, eraikuntzako gure produktuen erabilerak dituen ingurumen-ondorioak eta hura lortzeko beharrezkoak diren jardueren ingurumen-eragina. Zeregin horiek gure proiektuak gauzatzeko kontratatutako enpresek egiten dituzte.

Gure ingurumen-konpromisoa gure kudeaketako alderdi askotan modu praktikoan ageri da, gure **Hornitzaile Politikan** edo gure **Bezero, Produktu eta Zerbitzuaren Politikan** ikus daitekeen moduan. Gainera, ingurumenaren hobekuntza berrikuntzako gure ardatz nagusietako bat da, gure **Berrikuntza Politikak** jasotzen duen moduan.

Visesaren zuzendaritzatik, ingurumenarekiko dugun konpromisoa jakitera eman nahi dugu, honako era honetan zehaztuta:

### JARDUKETA PRINTZIOAK

- ⊙ Gure jarduerari aplika dakizkiokeen ingurumen mailako **lege baldintza** guztiak betetzen ditugu, izenpetutako gure akordioetatik sortutako beste baldintza guztiak edo gure sozietateak parte hartzen duen beste batzuekin izenpetutako lankidetzak proiektuetatik sortutakoak.
- ⊙ Enpresa publiko gisa dugun traktore lana betez, alde batetik, **sentsibilizazioaren** eta ingurumen-hobekuntzaren **sustatzaile**, eta bestetik, gure langileen artean nahiz interes taldeetan ingurumen praktika iraunkorrak sartzearen sustatzaile izan nahi dugu, batez ere gure enpresa hornitzaile, bezero eta erabiltzaileen artean.
- ⊙ **Ingurunea babesten** modu aktiboan laguntzen dugu honako printzipio hauek aplikatuz: kutsaduraren prebentzioa; baliabideen kontsumo arduratsu eta iraunkorra; klima aldaketaren arintze eta egokitzea; eta biodibertsitatea babestea gure jarduerak, produktuek eta zerbitzuek sortutako ondorioei aurre egiteko.
- ⊙ Gure politika korporatiboaren eta bikaintasun printzipioaren oinarri gisa, gure ingurumeneko kudeaketan **etengabe hobetzen** jarraitzea bilatzen dugu, adierazleak finkatuz, eta ingurumeneko gure helburuak berrikusiz eta hobetuz ingurumeneko gure kudeaketa sistemaren bitartez.
- ⊙ Ingurumeneko hobekuntza eta jardunbide egokien gure iturri nagusi bat **elkarrekin egiten dugun ikasketa eta berrikuntza** da toki mailako nahiz nazioarteko proiektuetan parte hartuz. Horri esker, gainera, alor horretan izandako aurrerapenen zaintza proaktiboa egin dezakegu hobera egiteko aukera-iturri gisa.

Beraz, **ingurumeneko kudeaketa sistema bat dugu**, gure bulegoetako jarduera eta kokaleku guztietarako ezarri eta ziurtatu dena, eta haren barnean ingurumen-aldagaia eta eragina dugun hiru esparru handiekiko jarduketak sartzen dira: proiektuak, obrak eta Visesaren bulegoak.

Ingurumenari buruzko gure lana zehazten eta jakinarazten dugu *GRI iraunkortasun memoriak* eta *EMAS Ingurumen Adierazpena* eginez.